



DURANGOKO AZOKAN

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO

PROTOKOLOA

1 ZERTARAKO?

Protokolo hau Durangoko Azokaren testuinguruan aplikatuko da, eta egitarauaren une ezberdinetan parte hartzen duten pertsonen eragingo die, beraien rola edozein izanik ere.

Honela, Azoka bisitatzera edota kultur aurkezpenetara doazen herritarrek aktibatu ahalko dute. Azokan parte hartzen duten sortzaile, artista zein langileak ere protokoloak babestuta leudeke, beti ere, Durangoko Azokan jazotzen diren gertaerak badira.

Azokaren testuinguru bezala ulertzen dira programazioa martxan dagoen tarte horiez gain, Azokaren prestaketarako muntaia eta desmuntaia tarteak ere.

Edozein modutan, egun horietan Durangon egoten den jendea Azokaren aitzakiapen gerturatu dela ulerturik, behin Azokak ateak itxita eta testuinguru horretatik kanpo zerbait gertatuko balitz, horren aurrean emandako erantzun publikoan parte hartuko luke Gerediaga Elkarteak.

2. PREBENTZIOA

Indarkeria matxistaren aurkako esku-hartzean prebentzioa da gakoetako bat eta hori da, besteak beste, protokolo honen egitekoetako bat.

Zentzu horretan, protokoloa existitze hutsa bada prebentzio neurri bat. Izan ere, protokolo bat existitzeak esan nahi du erasorik egongo balitz erantzuteko prest dagoela gunea eta badaudela horretarako baliabideak, beraz, alertak pizteaz gain, gunea ezaugarritzen laguntzen du.

Hala ere, protokoloa onartzearekin batera prebentziorako zein esku-hartzerako hainbat neurri ere abian jartzea aurreikusten da.

Azokako langileek protokoloa ezagutzea, honen parte izan daitezen

Protokoloaren arduradun batzuk egongo badira ere, garrantzitsua izango da Azokan lan egiten duten pertsona guztiek protokoloa ezagutzea eta, gutxienez, lehenengo urratsa zein den edo norengana jo behar duten argi izatea.



Infogunea: Gune morea

Gune morea infogunea izango da. Erreferentziazko gunea da Azoka-egunetan zehar eta beti dago norbait bertan. Horregatik hautatu da hau erreferentziazko gune bezala. Bertan dauden lankideek eraso edota gertakariaren berri jasoko dute eta protokoloaren arduradunari jakinarazi.

Norbait protokoloa aktibatzen gertatzen bada Infogunera, Azokaren erdian egonik, ez da espazio lasai eta pribatu bat izango. Hori dela eta, pertsona bat gertatzen denean leku lasaiago edo pribatuago batera eramango da. Kasuan kasu baloratuko da zer den egokiena.

Protokoloaren berri ematea

Kartelak: Protokoloaren berri emateko euskarri fisikoak jarriko dira Azokako guneetan zehar.

Web orria: Web orrian ere jasoko da protokoloaren berri.

Partaide izango direnekin: Egituraren parte izango direnez gain, garrantzitsua izango da gainontzeko parte hartzaileek ere izatea protokoloaren berri: sortzaileak, parte hartzen duten argitaletxeak, soinu teknikariak, larrialdi zerbitzuak, kontratatutako bestelako zerbitzuak...

3 . ESKU-HARTZEA

Kasuan kasu jokatu beharko da, egoera konkretu bakoitzaren arabera. Hala kasu bakoitzaren arabera jarraitu beharreko prozedura ezberdina izango da.

Prozedura hainbat modu ezberdinetan eraman ahalko denez, Azoka egunetan zehar protokoloa aktibatu eta kasuan kasu erabakiak hartzeko ardura batzorde batena izango da.

Lehenengo harrera edo artatzea egitearen ardura

Gune more bat egongo da, Infoguneak beteko du funtzio hau. Gune hau ongi adierazita egongo da, eta bertan egongo dira erasotuari lehen artatzea egingo dioten pertsonak.

Gune morea egokia eta lagungarria bada ere, Durangoko Azokak hainbat espazio ezberdin hartzen ditu, eta guztiak ez daude Landako gunean bertan edo hortik hurbil. Hori dela eta, **gune bakoitzeko arduraduna** izango da gune horretan protokoloa aktibatu nahi edo beharko balitz salaketa edo kexa jasotzearen arduraduna.



Azokaren gunean dauden txalekodun lankide guztiak ere erreferentzia dira nolabait bertarutzen diren herritarrentzat, beraz, beraiek ere protokoloa ezagutzea beharrezkoa izango da. Beraien ardura gune morera edo dagokion arduradunarengana jotzea izango da.

Protokoloarekin lotutako erabakiak hartzearen ardura **protokoloaren arduradunarena** izango da. Beharrezkoa ikusiko balu **Protokolo batzordea bilduko** da. Talde hori protokoloaren arduradunaz gain, komunikazio lantaldeko kide batek eta Gerediagako zuzendaritzako bi kidek osatuko dute; Azokako guneren batean gertatu bada, gune horretako arduradunak ere hartuko du parte Protokolo batzordean. Uneko erabaki batekin nahikoa ez den kasuen kudeaketaz arduratzea izango da talde honen funtzioa.

Sexu-erasoen kasuan

Prozesu osoan laguntzeko prest izango da pertsona bat Gerediagaren aldetik, eta saiatuko gara bere konfiantzazko pertsona bat ere egon dadin. Kasu hauetan bereziki garrantzitsua izango da pertsona hau bakarrik ez uztea erasoaren jasan eta gero.

4. ZEHAZTAPENAK

Protokolo honen baitan neurri konkretuak hartzeko aukera aurreikusten da.

Alde batetik, uneko neurriak egongo dira. Kasu honetan, erasoaren egin duen pertsonari bere jarreraren inguruan jarri den kexa jakinaraziko zaio eta gunea uztera gonbidatuko da. Horrez gain, megafoniatik mezu bat zabalduko da.

Beste alde batetik, Protokolo batzordeak hartu ditzakeen erabakiak egongo dira. Kasu honetan, zehapenei dagokienez, lanean dauden pertsonen eragingo diete batez ere: stand-etan dabilzanak, sortzaileak zein bestelako lanetan dihardutenak.

Gertaeraren arabera Batzordeak erabakiko du zein den hartu beharreko neurria, eta Durangoko Azokan parte hartzen duten eragile zein norbanakoek erabaki hori errespetatu beharko dute, Durangoko Azokako araudian jaso eta onartu duten bezala.

Hauek izango dira hartu daitezkeen erabakietako batzuk, aurrez aipatu bezala, kasuan kasu baloratutako direnak eta modu proportzionalean jardunez:

- Erasotzailea gunetik kanporatzea.
- Azokako edizio honetan parte hartzea debekatzea (hurrengo edizioetarako erabakiak jarraipena egitean hartuko dira).
- Udaltzaingoari gertatutakoaren berri jakinaraztea (kasuaren arabera).
- Erasotzailearen erakundeari erasoaren berri ematea.



5. INFORMAZIO INTERESGARRIA

Udalek beren zein mankomunitateen baliabideetatik eskaini dezakeen laguntzaz gain, egoera horietakoren bat bizi duen pertsonari beretzat lagungarriak izan daitezkeen zerbitzu publikoen beri emango zaio, bere babes egokia eta prozesuan behar duen laguntza eskainiko zaizkiola bermatze aldera.

Hona hemen lagungarriak izan daitezkeen hainbat zerbitzu:

- **Emakunderen Defentsa Zerbitzua:** Sexuagatiko bereizkeria egoeren aurreko herritarren defentsarako zerbitzua da eta emakume eta gizonen arteko tratu berdintasunaren eskubidea babesten du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Posta elektronikoa: emakunde.defentsoria@euskadi.eus

Web ataria: www.euskadi.net/defentsoria

Telefonoa: 945 01 65 50

- **24h arreta telefonoa genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat:** 900 840 111. Profesional espezializatuak arreta ematen diete mota guztietako indarkeria sufritu duten emakumeei. Bestalde, zerbitzuak aholkularitza eta informazioa eskaintzen die edozein zalantza edo gai argitu nahi duten profesionaleri, senideei edo hurbileko pertsoneri.
- **Berdindu! Zerbitzua.** Sexu- eta genero- aniztasunarekin zerikusia duten gaien buruzko informazioa eta arreta ematen duen zerbitzu publikoa da, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen dute. Arreta ordutegia: asteartetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 19:00etara.

Telefonoa: 900 840 128

ARABA: berdindu.araba@gmail.com

BIZKAIA: berdindu.bizkaia@gmail.com

GIPUZKOA: berdindu.gipuzkoa@gmail.com

- **Biktimaren Arreta Zerbitzua:** Barakaldoko, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Justizia Jauregietan kokatua, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei orientazioa eta laguntza eskaintzen die, aurrez aurre, doan, konfidentzialtasuna bermatuz eta banakako modu pertsonalizatuan, prozesu osoan zehar: laguntza psikologikoa, prozesu judizialaren azalpena eta laguntza, epaiketa prestatzeko laguntza, doako justiziaren izapidetzea eta eskubideen, legezko prozeduren eta errekurtsoen inguruko informazioa.
- **Durangoko Andragunea.** Andragunea emakumeen topagunea eta prestakuntzarako lekua da. Gizon eta emakumeen berdintasun harremanak sustatzeko espazioa dugu. Durangokoa edo inguruko herrietakoa ez bada bere etxetik gertu dagoen bere erreferentziazko Emakumeen etxera jotzeko gomendioa egin diezaiokegu.

Lariz Dorrea 2, 48.200 Durango

Telefona: 94 465 70 92

Posta elektronikoa: andragunea@durango.eus



- **Durangoko Indarkeria Matxistaren Unitatea (Andragunean dago kokatua).**

Indarkeria matxistaren unitatea unitate espezializatua da, indarkeria hori jasan duten pertsonen arreta integrala ematen zaiela bermatzeko. Gaur egun, unitate hori teknikari batek osatzen du.

Arreta ordutegia:

- Astelehen, asteazken eta ostiraletan 10:00etatik 14:00etara
- Astearte eta ostegunetan 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara

Harremanetarako telefonoak eta emailak:

- 94 603 0046
- 618 791 333
- misasi@durango.eus

- **Sexu-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako arreta integrala**

Sexu-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeak, haien familiak eta hurbilekoak informatu, bideratu eta laguntzen dituen zerbitzu espezializatua eta doakoa da. Lurralde bakoitzak berea du. Egunero 24 orduko zerbitzua eskaintzen dute.

Bizkaia

Telefonoa: 900 840 977

Txat bidez ere ematen dute zerbitzua web orriaren bitartez.

<https://www.bizkaia.eus/eu/arreta-zerbitzuak/hasiera>

Gipuzkoa: Hariberria zerbitzua

Telefonoa: 900 840 188

Helbidea: Gros auzoa Kale berria 10, 20001

Emaila: hariberria@gipuzkoa.eus

Nafarroa

Sexu-indarkerien Arreta Osorako Zentroan (SIAIZ)

Xabier Mina plaza, 4. 31006 Iruña

Telefonoa: 848 463 999

Posta elektronikoa: caivs@fundaciongizain.es